

# Irakaskuntza publikoan langileen gatazka ez da konpondu

*Sindikatu bakar baten babesean ezarritako dekretuak ez du balio arazo nagusiei modu egokian aurre egiteko*

Langileen ordezkartzaren gehiengoaren plataformari muzin eginez, Hezkuntza Sailak eta CCOO sindikatuak adostu zuten dekretuak irakaskuntzako gatazka faltsuan itxi nahi izan zuen. Horren ondorioz ezarritako neurriek ez diete erantzun nahikorik eman irakasleen errebindikazio nagusiei.

Egonkortasun hitzarmena bertan behera utzi dute eta, hau ordezkatzeko, finkatze sistema bat asmatu, antzinasunaren irizpidea kolokan jarri eta administrazioak interinoekiko zituen konpromisoak nabarmenki gutxituz. 55 urtetik gorakoentzat eskatutako irakas-ordutegiaren murrizketaren aurrean, erantzun penagarria emateaz gain (2 ordu astean 59 urtetik gorakoentzat, Haur eta Lehen Hezkuntzan), ez dute ikasturte honetan aplikatu. Hezkuntza Sistemak dituen behar berriei aurre egiteko sortutako figura berriak ez dira orokortu eta modu guztiz eskasean ezarri dira ikastetxe batzutan. Ratioak aldatzeko eskaeraren aurrean, 2 urteko geletan besterik ez dute aplikatu, eta ez modu zuzenean. Ordezkoen egoerak (%25) okerrera egin du bere lan baldintzetan, eta mehatxu berriak iragarri ditu administrazioak. Soldata igoera egokien eskaerari, zatiketa ezartzen duten osagarri ekonomiko arbitrarioak gauzatu dituzte.

Hau da, dekretuak ez ditu arazoak konpondu eta, gainera, sindikatu batek emandako babesak askatasun handiagoa eman dio administrazioari mobilizazioen bidetik lortu ziren hobekuntzak murriztu edo ezereztatzeko.

Hezkuntza Sistemak erronka ugari eta garrantzi handikoak ditu mahai gainean, hala nola, curriculum berriaren ezarpena, ikasle etorkinen eskolatzea, bizikidetzaren egitasmoen lanketa, teknologia berrien hedapena, Hizkuntza Normalkuntza planak... Inork ez du zalantzarik zeregin hauetan irakasleek eta langile guztiek, eta hauen jarrerak, duten garrantziaz. Jakina da ere aspaldian bete eta bete ari dela irakasleon motxila, baina ez dirudi administrazioari axola zaionik.

Langileen gehiengoaren ordezkatzaren dugun STEE-EILAS, LAB, ELA eta UGT sindikatuok garbi dugu dekretuak eta administrazioaren jarrerak ez dutela batere laguntzen irakasleek erronka hauen guztiei aurre egiteko, eta are gutxiago hauen inplikazioa sustatzeko.

Eskola Publikoaren defentsa diskurtso politik botatzean baino, inplikaturiko guztien arteko parte hartzean eta adostasun zabalenetan oinarritu beharra dago. Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko ezinbestekoa da inbertsioak ugaritzea, eta baita ere lan baldintza egokiak bermatzea.

STEE-EILAS, LAB, ELA eta UGT sindikatuak burutzen ari garen protesta honen bitartez Hezkuntza Sailaren ikusmira murriztu salatu eta langileen haserrearen adierazi nahi dugu. Era berean, irakaslearen gehiengoaren eskaerei lekua uzten dieten negoziazioak bideratzea eskatzen dugu.

Gasteiz, 2008ko martxoaren 13a.

**STEE-EILAS** 

**LAB**  
Irakaskuntza

**ELA**  
gizalan

